

## **MARISOL GARMENDIA: “ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA-POLITIKEK LEHENTASUNA DUTE GURE GAZTEAK DONOSTIAN GERA DAITEZEN”**

Marisol Garmendia Donostiako Alkatetzarako hautagai sozialistak adierazi duenez, “premiatzkoa da alokairuko etxebizitzaren politika publikoak bultzatzea, bereziki gazte donostiarrek, beren hirian, beren auzoan, bizitzeko gera daitezkeen, orain askotan, beren hiritik kanpo etxebizitza bat bilatu behar izaten dutelako. Gazterik gabe ez dago etorkizunik Donostiarentzat. Bere auzoan edo bere hirian bizi nahi izatea luxua dela esan zuenaren aurrean, guk proiektu estrategiko bat aurreikusten dugu”, adierazi du.

Donostiako Sozialistentzat, etxebizitza publikoa bultzatzea helburu ukalezina da, horretarako Pedro Sanchezen Gobernuaren Etxebizitza Lege berriaz eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Etxebizitza Legeaz baliatuz, “eta bietan EAJK aurka bozkatu du”, Garmendiak esan du.

“Legea ahal bidetzen ditue baliabideak erabiliko ditugu eremu tentsionatuak izendatzeko, alokairuei aurre egiteko, jabeen pizgarriak emateko etxebizitza hutsak alokairuaren merkatura atera ditzaten eta eraikinen eta etxebizitzaren birgaitzeari laguntzen jarrai dezaten”, gaineratu du.

Sozialisten proposamenak hurrengo hamarkadan hirian 6.000 etxebizitza berri eraikitzea planteatzen du. “Guk Cuarteles de Loiolan, Pedro Sanchezen Gobernuarekin egindako akordioari esker posible izan den eragiketa, % 60ko alokairuko sustapen publikoko etxebizitzak garatzea proposatzen dugu. Eta garapen iraunkorra planteatzen dugu, aukera hau aprobetxatzea modu desberdinean jarduteko, abangoardiako arkitekturaz, Europako beste hiri batzuen antzera, hiri eginez, ez bakarrik etxeak”, esan du.

# Marisol Garmendia

Era berean, Autonomia kalean etxebizitza publiko programa bat garatzea aipatu du, topoaren bideak lurperatu ondoren.

Beste proposamen batzuk gazteei zuzenduta daude, bereziki, honako hauen bidez: Illunben alokairuko bizitokiak, gazte eta adinekoentzako zuzkidura-apartamentuak Manteon, Erriberan... edo Mundaiz inguruan kulturarekin eta sormenarekin lotutako bizitokiak eta zerbitzuak konbinatuko dituen Urban District bat sortuz, Tabakalerako eremua luzatuz.

[www.marisolgarmendia.eus](http://www.marisolgarmendia.eus)

